

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 106/2024 martxoaren 19oa Onestea 2024ko ekitaldian Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan izandako jarduera gastuei aurre egiteko laguntzen deialdia

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuak 8. artikuluan xedatzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari dagokiola lanbide kualifikazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak sustatzeko ekintzak eta ekimenak proposatzea eta haiek gainbegiratzea, bai eta lanbide heziketako zentroak eta Arabako beste erakunde batzuk hobetzea, autonomoei laguntzea, txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea, eta turismoa eta artisau jarduera sustatzea ere.

Azken urteotan, bisitarien kopurua eta turismoaren garrantzia nabarmen hazi da lurralde historikoan. Sektore horren alde egindako lanari esker, Araba helmuga turistiko ia ezezaguna izatetik gero eta jende gehiago erakartzen duen helmuga izatera pasa da. Arabako Foru Aldundiak jarduera horren alde egiten du argi eta garbi, lurraldearen garapen ekonomikoa ahalbidetzeko aukera gisa, enpresei eta herritarrei onura ekarriko dielakoan. Turismoaren sektorea oso azkar ari da garatzen, eta, horregatik, kontsumitzaileak erakartzeko estrategia indartzen ari da Arabako Foru Aldundia, lurraldean turismoaren garapen jasangarria sustatzen eta konplexua eta zeharkakoa den sektorearen buru izaten.

Sail honen helburua da Araba turismo hazkundearen eredu egitea, gure turismo helmugen, produktuen eta baliabideen jasangarritasunean, kalitatean eta aniztasunean oinarrituta. Horren harira, deialdi publiko bat egitea erabaki da, Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeentzat.

Egungo ziurgabetasun eta aldaketa egoera dela eta, beharrezkoa da planteatzen diren erronken arabera erreakzionatzeko eta jarduteko neurriak hartzea. Neurri horiek gure turismo helmugen, produktuen eta baliabideen jasangarritasunaren, kalitatearen eta aniztasunaren aldeko apustua egiten dute epe ertain eta luzera, Arabako Lurralde Historikoa turismo helmuga seguru, jasangarri, arduratsu, adimentsu, bikain eta lehiakor bihurtzeko.

Gauzak horrela, jarduera turistikoa suspertzen jarraitu nahi da, Arabako produktu turistikoak diseinatzen eta abian jartzen, sustatzen eta merkaturatzen lagunduz, eta Arabaren posizionamendua sendotzen laguntzen duten ekitaldiei lagunduz.

Horregatik guztiagatik, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasunaren eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, 2024ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko elkarteetan turismoa sustatzeko ekimenek bete beharrekoak jasotzen dituen laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan 2024ko ekitaldian izandako jarduera gastuei aurre egiteko laguntzen deialdia, 132.250,00 euroko gehieneko zuzkidurarekin. Deialdi hori foru agindu honi erantsita doa.

Bigarrena.- Deialdi hori arautu da kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoa.

Hirugarrena.- Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 30502. G/432300/48100308 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 132.250,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Laugarrena.- Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen, eskumena duen jurisdikzioan.

Bosgarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 19a

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

ARABAKO TURISMO SEKTOREKO IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO
ERAKUNDEETAN 2024KO EKITALDIAN SORTUTAKO JARDUERA
GASTUEI AURRE EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da Arabako turismo sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeei laguntzea 2024ko ekitaldian sortutako jarduera gastuak edo gastu arruntak estaltzen.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 30502. G/432300/48100308 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 132.250,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete probintzia eremuko irabazteko xederik gabeko elkarteek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan behar bezala erregistratuta badaude eta helburu soziala turismoa sustatzea badute edo Arabako Lurralde Historikoan proiektu turistiko edo gastronomiko bat garatzen badute. Landa garapeneko elkarteak kanpoan geratuko dira berariaz.

3.2. Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian.

3.3. Berariaz baztertuta geratzen dira 2024ko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izendun bat jaso duten eskatzaileak, baldin eta haren xedea bat badator dirulaguntzaren xedearekin, bai eta haiekin elkartutakoak ere, adjudikazioaren unean hitzarmena sinatuta izan edo ez; baztertuta geratzen dira, halaber, laguntza lerro honen aurreko deialdietan emandako beste dirulaguntza batzuk epe barruan egin edo justifikatu ez dituztenak, salbu eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez-betetze horren arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

3.4. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ez eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrek zehatutakoek ere.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahal izango dira inolako zalantzarik gabe proiektuak abian jartzeko lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

– A) Zerbitzu turistikoak (bisita gidatuak, bizikleten alokairua...) kontratatze lineako merkaturatze sistemak hobetzeko edo abian jartzeko gastuak.

– B) Lineako eta lineaz kanpoko publizitaterako gastuak. Kontzeptu honetan, honako hauekin loturiko publizitate gastuak onartuko dira: Interneteko plataformak, web orriak sortu, itzuli edo eguneratzea, SEO, SEM bilatzaileetako, landing page-etako eta blog-etako posizionamendua hobetzeko ekintzak, sare sozialetako edukia eta e-mail marketina. Horiez gain, bisitak egitea errazten duten eta esperientzia turistikoa optimizatzen duten gailu mugikorretarako egokitzapenak.

– C) Turismoa sustatzeko doako materialak diseinatzeko, egiteko, maketatzeko eta itzultzeko gastuak. Kontzeptu honetan onartuko dira diseinu grafikoari, liburuxkak eta kartelak egiteari eta flyer-ei dagozkien gastuak.

– D) Gehienez ere hiru turismo ekitaldi sortu, hobetu, antolatu, sustatu eta merkaturatzeko gastuak, turismo ekitalditzat hauek hartuta: aurretiaz antolatutako gertaerak, arrazoi pertsonalak edo profesionalak direla-eta pertsonak haien ohiko bizilekutik kanpo dauden tokietara mugiarazteko ahalmena dutenak.

– E) Bisita gidatuak egiteak sortutako gastuak.

– F) Erabilerarako ingurumen planak edota kudeaketa adimentsuen edota jasagarrien ereduak.

G) Gehienez legez eraturako bi ostalaritza eta turismo elkartetan afiliatzeko gastuak, izan elkarte horiek tokikoak, eskualdekoak edo lurraldekoak.

4.2. Diruz lagundu daitezkeen gastu horietarako, gehienez ere, zenbateko hauek emango dira:

– Turismoa sustatzeko material orokorra eta lineaz kanpoko beste publizitate bide batzuk argitaratu eta itzultzea: 2.000,00 euro.

– Turismoko web orriak eta lineaz kanpoko beste publizitate bide batzuk diseinatu, eguneratu eta itzultzeko gastuak: 6.000,00 euro.

– Bisita gidatuak: 6.000,00 euro.

– Turismo ekitaldiak sortzea, hobetzea, antolatzea, sustatzea eta merkaturatzea: 20.000,00 euro.

4.3. Ez dira diruz lagunduko, besteak beste, honako kontzeptu hauek:

– Sustapenerako materialak inprimatzearen gastuak.

– Material ez suntsikorren gastuak eta inbertsio gastuak, materiala nahiz immateriala izan.

– Material inbentariagarria hornitzearen, jartzearen, garraiatzearen eta abarren gastuak.

– Prestakuntzarekin zerikusia duten gastuak, edozein eratakoak.

– Ibilgailuetan eta establezimenduetan errotuluak jartzeko gastuak.

– Funtzionamenduko gastu arruntak, hala nola alokairuak, argia, telefonoa, aldizkarietako harpidetzak, aseguruak eta bulegoko materiala.

– Erakunde eskatzailearen barne langileen gastuak.

– Ibilgetuen alokairu gastuak.

– Internet zerbitzuaren kuotak eta elkarteei ordaindutako kuotak, aldizkako informazio bulletinenak eta aldian aldiko gainerako gastuak.

– Web orrien erregistro eta hosting gastuak eta gainerako mantentze gastuak.

– Dirulaguntza jaso dezaketen lehiaketetako sariak.

– Merchandising materialak (sustapenerako materialak) erostea eta banatzea.

– Sustapen ekitaldien gastuak (lunch, bazkari, jai eta abarretakoak).

– Xede nagusitzat kirola edota kultura sustatzea daukaten ekitaldiak.

– Babesletza gastuak.

– Laguntza eskaeraren kudeaketa gastuak.

– Telefono terminalak eskuratzea, nahiz eta aplikazio informatikoak izan.

4.4. Zergak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak ordaindu ordaintzen baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira inolaz ere diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Eskatzailearen eta hornitzailearen arteko lotura dagoenean, gasturako dirulaguntza emango da baldin eta hiru eskaintza eskatzen badira zerbitzua edo inbertsioa egiteko, eta, eskaintzarik merkeena hautatu ezean, horren arrazoiak justifikatzen badira.

4.6. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 arteko azpikontratazioa egitea baimentzen da, baina Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko dira.

4.7. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz turismoa sustatzen nahikoa laguntzen ez duten jarduketak badaude, baztertu egin daitezke esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2023ko abenduaren 2tik 2024ko abenduaren 20ra (biak barne) bitarteko aldiari egin beharko dituzte inbertsioak.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Foru agindu honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80raino iritsiko dira (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 7.3 oinarri orokorra). Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 25.000,00 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko.

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahal izango da, hainbanaketaz ehuneko 90eraino handitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehunekoak.

6.3. Erakunde eskatzailea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuen onuradun izan bada programa honen kargura onartutako proiektuen antzeko izaera duten proiektuetan, diruz lagundu daitekeen oinarria egokitu egingo da araudi honetan ezarritako gehieneko mugak ez gainditzeko.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 1.000,00 eurokoa izan behar da adjudikazioa egiten den unean.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Bokala: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan dagoen izapide espezifikokoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-turismo-actividad-entidades>). Dena dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa ere aplikatuko da.

AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektroniko baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2024ko maiatzaren 10ean amaituko da.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– a) Eskatzailearen jardueraren memoria (kokapen fisikoa, jardueraren xedea...) eta dirulaguntzaren xede diren jardueren memoria.

– b) Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintza (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– c) Eskatutako hiru eskaintza, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euro edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada eskaintzarik merkeena, hura aukeratu izanaren arrazoia. Proiektua gauzatzen hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onetsi zenean zenbatekoa txikiagoa izan, orduan ere hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

– d) Estatutuak.

– e) Eusko Jaurlearien Elkarten Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, edo, fundazioen kasuan, dagokion erregistroan inskribatu izanaren frogagiria.

– f) Diruz lagundutako jardueretan BEZaren aitortpena aurkeztu beharretik salbuetsita egotearen frogagiria, dagokionean. Dokumentazio hori aurkezten ez bada, deialdi honen ondorioetarako ulertuko da erakunde eskatzailea ez dagoela BEZaren aitortpena aurkeztu beharretik salbuetsita.

8.4. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak laguntza eskaeraren eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.5. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ofizioz egiaztatu ahal izango ditu honako datu hauek administrazio eskudunean:

– zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,

– eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa,

– Ogasunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu den ala ez jakiteko informazioa (profesionalek jaulkitako fakturen kasuan soilik).

Eskatzaileak ofiziozko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskatzean.

9. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

9.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Eskaeran hasieratik bertatik sartu izana beharrezkoa den dokumentazio guztia hura aztertzeke (25 puntu gehienez).

Eskaera egiteko neuan, 8.1 puntuan adierazitako berariazko izapidearen bidez, osorik aurkeztutako eskaerak	25 puntu
Lehen dokumentazio errekerimendu baten ondoren, 8.1 puntuan adierazitako berariazko izapidearen bidez, osorik aurkeztutako eskaerak	15 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	5 puntu

b) Ekitaldi bat egitea goi denboralditik kanpo (goi denboraldia: uztaila, abuztua, aste santua eta zubiak) (25 puntu gehienez). Ekitaldi bat ondoren ezarritakoez bestelako bi denbora tarteri edo gehiagori dagozkien datetan garatzen bada, tarte horietako puntuaziorik handiena emango zaio. Era berean, eskatzaile berak bi ekitaldi edo gehiago gauzatzen baditu, puntuaziorik altuena duen ekitaldiaren puntuazioa emango zaio.

Abendua-martxo	25 puntu
Apirila-maiatza / urria-azaroa	20 puntu
Ekaina eta iraila	10 puntu
Urteko ekitaldiak, eskaeran datarik zehaztuta ez duten ekitaldiak eta goi denboraldian egiten diren ekitaldiak	5 puntu

c) Proiektuaren berrikuntza maila, oro har, eta zein neurritan laguntzen duen turismo eskaintza dibertsifikatzen (25 puntu gehienez).

Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du eta eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	25 puntu
Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du edo eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	15 puntu
Proiektuak ez du izaera berritzaile nabarmenik eta ez du eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen	5 puntu

d) Aurreko ekitaldian eta dirulaguntzen lerro honen barruan emandako dirulaguntzaren gauzatze eta betetze maila (25 puntu gehienez).

Ehuneko 85 baino gehiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean, edo alde zurretik dirulaguntzarik ez duena	25 puntu
Ehuneko 75 baino gehiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean	20 puntu
Ehuneko 60 baino gehiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean	15 puntu
Ehuneko 60 edo gutxiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean	10 puntu
Ehuneko 40 baino gutxiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean, eta justifikazio idazkia aurkeztuta	5 puntu
Ehuneko 40 baino gutxiago onartuta, adjudikatutakoaren aldean, justifikazio idazkirik gabe	0 puntu

9.2. Edonola ere, lerro honetako dirulaguntzen onuraduntzat eman ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gainera, aurkeztutako jarduketan multzoak gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren zazpigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Dagozkion ebazpenak organo eskudunak emango ditu, Balorazio Batzordearen proposamenez. Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako Herri Administrazioetako administrari erkideak eman eta jakinarazteko gehieneko epea. Prozeduraren ebazpena aurkezteko epea amaitzen denetik sei hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, administrazio-isiltasuna ezestekoa dela ulertuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikulua.

10.2. Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agindu bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintzak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

11.3. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute interesdunaren esku egongo den jatorrizkoarekin, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuradunak du dokumentazioa egiazkoa izatearen ardura.

11.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordaintzeko betebeharra onartzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2024ko abenduaren 20rako (egun hori barne):

- Egindako jardueren memoria.
- Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak.
- Hiru eskaintza eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak justifikatzen dituen txostena (bakar-bakarrak partidaren batek eskaera egiteko garaian hiru eskaintza aurkeztera behartzen ez bazuen eta geroago benetako gastuak 15.000,00 euro edo gehiagokoak izan badira).
- Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:
- Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia bat datozela jatorrizko dokumentuekin.
- Dirulaguntza honetaz gainera, diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren ala ez. Hala bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztu behar da.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste edozein agiri aurkeztu behar izanez gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoki kualifikatuen emaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak beste dokumentu batzuk ere eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Profesionalek jaulkitako fakturen kasuan, erakunde onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketaren betebeharra onartuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatu eta dagokion justifikazio txostena ematea. Dirulaguntza ordaindu bada eta, egiaztapena egin ondoren ikusten bada dagozkion atxikipenak ez direla ordaindu, ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatuko da, dagozkion interesekin.

11.5. Arabako Foru Aldundiak justifikatutako dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50 ordainduko du, eta lehen ordainketa frogatutzat emango du baldin eta onuradunak 2025eko martxoaren 28ra arteko epean aurkezten baditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturen ordainketaren frogagiriak, honako formatu hauetako edozeinetan:

– Banka elektronikoa bidez egindako banku laburpenak edota transferentzia aginduak, ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data zehaztuta dutenak.

– Tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikularen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da: ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak, hartzailearen IFZ eta helbidea adierazten dutenak, bai eta esleitutako zerga kuota bereizita ere, eta diruz lagundutako jarduna zehazten dutenak eta tiketa jaulkita dagokion zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak.

– Eskurako ordainketen kasuan, frogagiritzat hartuko da fakturaren erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri sinatua edota zigilatua, zeinetan faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data agertu beharko baitira, betiere zenbateko hori eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen 2024ko araudian ezartzen den zenbatekoa edo handiagoa ez bada.

11.6. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabaliao atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.7. Ordainketak arinago egin daitezten, agiriak kasu bakoitzerako ezarritako epemuga baino lehen aurkeztu ahal izango dira.

11.8. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.9. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.10. Dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko nahiz hura kobartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko da erregistro elektronikoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

11.11. Ausazko edota aukerako laginketa tekniken bidez egiaztatu ahalko da ea egiazkoak diren memorian aurkeztutako fakturen kopiak eta ordainagiritako zenbait.

11.12. Zenbait kasutan lehenengo entrega egin ahal izango da, justifikatu beharreko aurre-rakin gisa. Hala ere, ez da ezarri emandako funtsak bermatzeko inolako araubiderik.

11.13. Baldin eta 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe; alabaina, beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrekoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

11.14. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

12.2. Deialdi honetan ezarritako laguntzek bete egin behar dituzte Europako Batzordearen unean uneko indarreko erregelamenduetan ezarritako "minimis" arauak. Horretarako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko "minimis" laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako "minimis" laguntzen guztizko zenbatekoa ezin dela izan 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Eskaerak egokitzea

Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak—dela foru agindu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, dela diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako—dagokien laguntza lerrora eraman ahal izango dira ofizioz.

14. artikulua. Araubide juridikoa

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapenak.